

## SECCION AMENA.



# ARRAZOYAREKIÑ.



(NERE LAGUN ZAR VICENTE ORDOZGOITI-RI.)

Goyaztik Tolosako  
merkatuta Premiñ  
dator goizian bere  
astochuarekiñ.  
Astua zarra da ta  
ibiltzen ez ariñ  
lepo aldera diyo  
zakuak eragiñ.  
Orrengatik dijua  
animaliya estu  
maiz atze aldetikan  
egiñikan soñu.  
Marmar zerbait esaten  
noski bere modu  
kejatzeko gañuak  
arrazoya badu.  
Premiñek—arre, arre—  
makiña bat oju

ateratzen du bañan  
astuak ez aitu.  
¿Ez aitu? Nere ustez  
maiz eranzutendu  
bestela ¿zertarako  
tronpeta jotzendu?  
Utzi ditu guztiyak  
oso penatuak  
jalako karga zuben,  
bai, gizarajuak!  
¿Ezagutzen zaill alda  
zein dan astuago?...  
Batek diyo Premiñi  
ta onek geruago:  
—Gizonchua karg' ori  
aurreregi dago—  
—¡¡Ai balego legua  
batez aurrerago!!

MARCELINO SOROA.

